



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

6560f89dff697e96f06411ae0b707a5d35e4bbb55867c0d2f46e4e16eb9355ce

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO ABENDUAREN 23AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2021.12.23

Tolosako Udaletxean, 2021eko abenduaren hogeita hiruan, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)(telematikoki)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU) .
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)(telematikoki)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Ondorengo akta hau onartzea:
2021eko azaroaren 25eko ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Tolosako Udala Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Zerbitzuan sartzen denean, integrazioa osatzeko, Udalaren prezio publikoak arautzen dituen 3.1.2 eranskina aldatzea.
3. Hasieraz onartzea 2022ko Aurrekontu Orokorra.
4. Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.
5. KEAOk emandako ebazpenaren berri ematea eta Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuaren lizitazio-prozedura bertan behera uztea.
6. Berri ematea: Tolosako Udal biztanleen erroldaren berrikuspenetik emandako biztanleen kopuru ofiziala, 2021eko urtarrilaren 1ean.
7. EH Bildu udal taldeko kide eta ordezkoen aldaketa batzorde informatibo eta Berdintasun kontseiluan.
8. Zinegotzi baten kargu uztearen jakitun izatea.
9. Galderak eta eskaerak.

Lehenik eta behin udal idazkariak honako hau azaldu du:

Gaurko bilkura erdi presentziala izango da, Udalbatzako kide batzuk etxean konfinatuta daudelako. Egoera honen aurrean, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean xedaturikoa aplikatuko da: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios*



necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.

A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, udal idazkariak honako egiaztapen hauek egin ditu:

Lehena- Konfinatuta dauden batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Fisikoki ez dagoen batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Konfinatuta dagoen batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Eta bukatzeko, batzarkideek, aho batez, berretsi dute Osoko Bilkura era erdi presentzialean egitea.

Jarraian, alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2021EKO AZAROAREN 25EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. TOLOSAKO UDALA GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ZERBITZUAN SARTZEN DENEAN, INTEGRAZIOA OSATZEKO, UDALAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN 3.1.2 ERANSKINA ALDATZEA.

**ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO
ABENDUAREN 15EKO IRIZPENA**

Udalbatzak, 2021eko azaroaren 25ean, Ohiko Osoko Bilkuran, Tolosa Gipuzkoako Lurralde Historikoan Garraio Publikoko Zerbitzuan, tarifen integraziorako sistemari



sartzeko prozedura onartu zuen. Helburua, besteak beste, Tolosako bidaiarien hiriko garraio publikoan tarifak bateratzeko sistema ezartzea da, Garraioaren Lurralde Agintaritzarekin adostuta.

Tarifak integratzeko sistema txartel bakarraren gainean oinarritzen da, sistemara atxikia dagoen edozein operadoretan bidaiatzeko aukera emanez txartelaren erabiltzaileari.

Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifak integratzeko sistema zehazten du, eta puntu hauek finkatu ditu: zonakatze komuna, tarifen sistema integratua, integratutako tarifak, bertan integratutako giza talde bereziak eta garraio aldaketen politika hobarituak, eta baita sistemak lortutako diru-sarrerak operadoreei banatzeko sistema ere.

Integrazioa osatzeko, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren estatutuak onartu eta tarifen integrazioko sistemaren hitzarmena sinatzeaz gain, Tolosako Udalak Tolosako hiri garraio zerbitzurako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren tarifak onartu behar ditu. Horretarako, zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatu behar da, 3.1.2 eranskina, hain zuzen ere, 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauak adierazitako prozedurari jarraituz.

Gaur egungo prezio publikoak bertan behera geratzea proposatu da, eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren 3. Hiribusa taldeko tarifak aplikatzea. Gaur egun, talde honetako tarifak honako hauek dira:

- Bidaia txartel arrunta: 1,35 euro
- Hilean 1-20 bidaia bitartean: 0,70 euro
- Hilean 21-50 bidaia bitartean: 0,57 euro
- Hilean 51 bidaia edo gehiago: 0,14 euro
- 6 urte arteko hurrek ez dute ordaintzen

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Kristina Pelaez, Ander Figuerido, Aitana Amondarain eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.

Hori dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Tolosako Udala Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Zerbitzuan sartzenean, integrazioa osatzeko, Udalaren prezio publikoak arautzen dituen 3.1.2 eranskina aldatzea.



Horretarako, gaur egungo eranskina ezabatu egingo da. Gaur egungo eranskina honako hau da:

3.1.2

ERANSKINA - ANEXO

UDAL GARRAIO ZERBITZUA	SERVICIO DE TRANSPORTE MUNICIPAL	EUROAK 2022
Bidaia-txartela	Billete por viaje	0,70
Bidaia, erabiltzaile txartelarekin	Con tarjeta usuario, viaje	0,30

APLIKAZIO ARAUAK

NORMAS DE APLICACIÓN

1. Artikulua.-

Artículo 1.º

Ogasun Lokalak erregulatzeko dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulutik 50.era bitartekoak xedatuaren arabera, udal garraio zerbitzua emateko prezio publikoak ezarri eta exijitzen dira.

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales, artículos 43 a 50, se establecen y exigen precios públicos por la prestación del servicio de transporte municipal.

2. Artikulua.-

Artículo 2.º

Ordenantza hau Udalerri osoan aplikatuko da.

La presente Ordenanza será de aplicación en todo el término municipal.

3. Artikulua.-

Artículo 3.º

Garraioa erabiltzen duten guztiek ordaindu beharko dute zerbitzua.

Estarán obligadas al pago todas las personas que utilicen el servicio de transporte.

4. Artikulua.-

Artículo 4.º

Zerbitzua erabiltzen den unean sortzen da ordaintzeko obligazioa.

La obligación de contribuir nace desde el momento que se utiliza el servicio.

BIGARRENA: Tolosako Udala Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Zerbitzuan integratzen denean, 3.1.2. eranskina honela geratzea:



“ 1. *Artikulua.*-

Ogasun Lokalak erregulatzan dituen uztaillaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulutik 50.era bitartekoek xedatuaren arabera, udal garraio zerbitzua emateko prezio publikoak ezarri eta exijitzen dira.

2. Artikulua.-

Eranskin honen xedea da Tolosako udalerrian bidaiarien hiri-garraio erregularren zerbitzuengatikotako tarifak arautzea.

3. Artikulua.-

Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiak onartzen dituen baldintza orokorrekin arautuko dituzte erabiltzaileen aldetik txartel bakarra erabiltzeko baldintzak.

4. Artikulua.-

Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiak onartutako 3. Hiribusa taldeko tarifak aplikatuko dira Tolosan.

HIRUGARRENA.- Aldaketa hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta sartzea indarrean Tolosa Gipuzkoako Lurralde Historikoan Garraio Publiko zerbitzuan, tarifen integrazioarako sisteman sartzen denean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Udala Garraioaren Lurralde Agintaritzaren zerbitzuan sartzen denean, integrazioa osatzeko, Udalaren prezio publikoak arautzen dituen 3.1.2 eranskina aldatzea.

3. HASIERAZ ONARTZEA 2022KO AURREKONTU OROKORRA.

Lehenik eta behin EH BILDU udal taldeak aurkeztu duen zuzenketa partziala azaldu da.

Honela dio:



TOLOSAKO UDALEKO 2022KO AURREKONTUAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

TOLOSARRON BIZI BALDINTZA DUINAK BERMATZEKO: 870.000 €

1. **Ekin-Enea, bazterkeria egoera larriei aurre egiteko plana: 300.000€**

2021ean martxan jarri zen proiektuari jarraipena eman inor bazterkeria egoeran gera ez dadin. Sakramentinoetan libre geratu den eraikina erabiltzeko hitzarmena sinatu sakramentinoen kongregazioarekin eraikinaren lagapena egiteko eta bertan proiektua martxan jartzeko Peñaskal kooperatibarekin batera.

2. **Gizarte babeserako proiektuak: 100.000€**

Zutani elkarteari dirulaguntza handitu, Tolosako norbanako eta familia zahurgarriei babesa modu egokian eman eta elikagai freskoen banaketa bermatzeko; Elikagaien xahuketa murrizteko proiektua; Hozkailu solidarioa martxan jartzea

3. **Zaintza eta kontziliazioa: 120.000€**

1. **Zaintzagaratik autokonfinatzen diren herritarrei laguntzeko plana: 60.000€**

Seme-alaben zaintzagaratik soldata gabeko baimena eskatu dutenei zuzendutako laguntza. Laguntzaren zenbatekoa eskatzailearen urteko diru sarreraren arabera finkatuko da, azken hiru hilabeteetako soldata kontuan hartuta, beti ere ez bada salbuespenezko egoerarik egon epe honetan (lanuzteak, murrizketak, ABEEak...). Hala balitz, ohiko baldintzetan lan egin duen azken hiru hilabeteak hartuko dira kontutan.

Dirulaguntzen baremazioa:

0 – 20.000€ / urte: soldataren % 50 / urte

20.000€ - 30.000€ / urte: soldataren % 30 / urte

30.000€ - 40.000€ / urteko % 10 / urte

2. **Etxeko kontziliazioan laguntzeko plana: 60.000€**

12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko zaintzailea kontratatu behar duten familientzako laguntza lerroa.

Laguntzaren zenbatekoa familia unitateko diru sarreraren arabera eta kontratu motaren arabera (lanaldi osoa/partziala) finkatuko da:

< 20.000€ / urte: kontratuaren %100, 1000€ gehienez.



20.000€ - 30.000€ / urte: kontratuaren % 50, 500€ gehienez.

4. **Etxebizitza plana: 350.000€**

Egoera txarrean dauden etxebizitzak udalaren esku utziko dituzte jabeek. Udalak hauek herriko gremioen bidez egokituko dituzte eta ostean udal etxebizitza parke publikoan txertatuko ditu. Obraren zenbatekoa amortizatu bitartean udalak alokairuan izango ditu, hauek gazteen esku uzten besteak beste.

TOLOSA JASANGARRIAGOA ETA IRISGARRIAGOA IZATEKO 1.100.000€

1. **Auzoetako hirigintza plana: 1.100.000€**

Bedaion martxan jarri den diagnosis Tolosako herrigune zein landa auzo desberdinetara zabaldu, hauek auzotarren parte hartzearekin hobetu, txukundu eta hornitu, parte hartze prozesuetan identifikatzen diren beharrak asetzeko konpromezua hartuz.

Zehaztutako hainbat inbertsio:

1. **San Esteban: 500.000€**

HAPoaren aldaketa partziala egiten den bitartean, auzoak premiazko berroneratze bat izan behar du, toki bizigarri, lasai eta seguruagoa izateko. Egoera txarrean dauden eraikin industrialak desjabetu, eraitsi eta berdeguneak zein bizilagunentzako bestelako espazioak osatu.

2. **Alde zaharra: 300.000€**

Alde zaharra berroneratzeko plangintza osatu behar da, hondamendi egoeran dauden eraikinak eraitsi eta bertan etxebizitzak egin edota orubeak libre utzi alde zaharra argiagoa eta aireztatuagoa egon dadin.

3. **Larramendi auzoa, Arkaute Etxea: 100.000€**

Teilatua konpondu ostean barnealdea txukuntzeko inbertsioa egin, besteak beste auzo elkarteak biltzeko gune bat izan dezan. Eraikina osotasunean zaharberritzeko proiektua egin.

4. **Trianguloa plaza: 200.000€**

Trianguloa plazak, Tolosako alde zahar eta zabalkundearen lotuneak, lurzorua eraberritzeko premia du irisgarritasun egokia bermatzeko.

TOLOSAREN GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATZEKO 550.000€

1. **Lehen sektorea: Tolosaldeko eta Euskal Herriko elikagaien gunea:**

500.000€

Bertako elikagaiak sustatu, kontsumo eredua eraldatu eta lehen sektorea indartzeko proiektu kooperatiboa. Elikagaien salmentaz harago, hauek eta hauen



ekoizleak balorean jarri eta kontsumo jasangarria ardatz dituen ekimena bultzatu nahi da. Oinarrian, irabazi asmorik gabeko proiektu kooperatiboa izatea proposatzen da.

Ikusirik Tolosaldean elikadura burujabetza bultzatzeko sortu den Lurtaro elkarteak eskualde mailako elikadura kooperatiba baten sorrera bultzatu nahi duela, Tolosako udalak kooperatiba honek behar dituen azpiegituretarako baliabideak jartzea proposatzen dugu.

Proiektu hau gauzatzeko elkarlana ezinbestekoa da. Hortaz, gure proposamena, Tolosako Udalak azpiegituren ardura hartzea litzateke eta Lurtaro kooperatiba eta eskualdeko ekoizleen zein beste eragileen artean proiektua diseinatu, gauzatu, martxan jarri eta kudeatzea proposatzen dugu.

2. Merkatari, ostalari eta autonomoi % 0 intereseko mikrokredituak:

50.000€

- %0 intereseko mikrokredituak "Ticket Bai" ekimenak suposatuko dituen egokitzapenak gauzatzen laguntzeko. 5.000 € arteko kredituak %0 interesean. Udalak bere egingo ditu finantza-gastuak.
- Saltokien digitalizaziorako aholkularitza emango da indar berezia jarritz "Ticket Bai" ekimenera egokitzeko.

LERROAK	FINANTZIAZIOA	GASTUAK	SARRERAK
TOLOSARRON BIZI BALDINTZA DUINAK BERMATZEKO		870.000€	
TOLOSA JASANGARRIAGOA ETA IRISGARRIAGOA IZATEKO		1.100.000€	
TOLOSAREN GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATZEKO		550.000€	
	<i>Pasibo finantziarioa</i>		1.520.000€
	<i>Zumardi txikia 0700.601.01.15320</i>		400.000€
	<i>San Estebaneko pabiloila 0700.622.02.92034</i>		600.000€
Gastuak guztira		2.520.000 €	
Sarrerak guztira			2.520.000€



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejaren Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz ez du onartu EH BILDU udal taldeak aurkeztutako zuzenketa.

Jarraian, Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2021eko abenduaren 15eko irizpena bozkatu dute. Irizpenak honela dio:

Aurrekariak

2022ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra eta bere barne dauden aurrekontu hauek aurkeztu dira:

Udala	34.512.762,00
Tolargi SL	972.595,00
Tolosa Gasa SA (% 60ko partaidetza)	330.938,00

Aipatutako aurrekontuetako bakoitzean sartu dira ekitaldian likidatu beharreko eskubideengatik aurreikusitako sarreraren egoera eta ordainketazko nahiz konpromisozko beharrei aurre egiteko kredituen gastuen egoera.

Aurrekontuetan jasotako diru-sarrerak nahikoak dira bertan aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Era horretan, Aurrekontu Orokorrek ez du hasierako defizitik.

Aurrekontu Orokorra nahiz bera osatzen duten aurrekontuak egiterakoan aurrekontu gaitan indarrean dauden xedapenak izan dira kontuan.

Aurrekontu Orokorren onarpena Udalbatzarraren esku dago eta gehiengo soilaren aldeko botoa behar du.



Aurrekontu Orokorra onartzen duen behin-behineko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, jendeari horren berri emateko eta, hamabost laneguneko epean, jendeak aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Udalbatzarrak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin betiko onartu.

Erreklamaziorik ez badago, hartutako behin-behineko erabakia behin betikoa izango da.

Araubide aplikagarria

- a) 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.

Proiektuaren laburpena kapituluka hau da:

Tolosako Udalaren Aurrekontua.

SARRERAK			INGRESOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	5.986.500,00	1	Impuestos directos	5.986.500,00
2	Zeharkako zergak	1.359.500,00	2	Impuestos indirectos	1.359.500,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	3.730.000,00	3	Tasas y otros ingresos	3.730.000,00
4	Transferentzia korronteak	16.413.762,00	4	Transferencias corrientes	16.413.762,00
5	Ondare sarrerak	1.080.000,00	5	Ingresos patrimoniales	1.080.000,00
6	Inbertsioen besterenganatzea	1.383.000,00	6	Enajenación de inversiones reales	1.383.000,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	4.560.000,00	9	Pasivos financieros	4.560.000,00
	GUZTIRA	34.512.762,00		TOTAL	34.512.762,00

GASTUAK			GASTOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal gastuak	10.969.403,00	1	Gastos de personal	10.969.403,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	11.728.811,00	2	Bienes corrientes y servicios	11.728.811,00
3	Finantza gastuak	1.000,00	3	Gastos financieros	1.000,00
4	Transferentzia korronteak	4.170.926,00	4	Transferencias corrientes	4.170.926,00
6	Inbertsio errealak	6.327.259,00	6	Inversiones reales	6.327.259,00
7	Kapital Transferentziak	245.000,00	7	Transferencias de capital	245.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	1.070.363,00	9	Pasivos financieros	1.070.363,00
	GUZTIRA	34.512.762,00		TOTAL	34.512.762,00



Tolargi SLren Aurrekontua

SARRERAK			INGRESOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.394.425,00	3	Tasas y otros ingresos	1.394.425,00
4	Transferentzia korranteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	5	Ingresos patrimoniales	0,00
6	Inbertsioen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	-421.830,00	8	Activos financieros	-421.830,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	972.595,00		TOTAL	972.595,00

GASTUAK			GASTOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal gastuak	475.309,00	1	Gastos de personal	475.309,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	340.286,00	2	Bienes corrientes y servicios	340.286,00
3	Finantza Gastuak	2.000,00	3	Gastos financieros	2.000,00
4	Transferentzia korranteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
6	Inbertsio errealak	140.000,00	6	Inversiones reales	140.000,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	15.000,00	9	Pasivos financieros	15.000,00
	GUZTIRA	972.595,00		TOTAL	972.595,00



Tolosa Gasasaren Aurrekontua (% 60)

SARRERAK			%60a	INGRESOS			%60a
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros		
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00		
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00		
3	Tasak eta bestelako sarrerak	494.584,00	3	Tasas y otros ingresos	494.584,00		
4	Transferentzia korranteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00		
5	Ondare sarrerak	813,00	5	Ingresos patrimoniales	813,00		
6	Inbertsioen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00		
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00		
8	Finantza Aktiboak	-164.459,00	8	Activos financieros	-164.459,00		
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00		
	GUZTIRA	330.938,00		TOTAL	330.938,00		

GASTUAK			%60a	GASTOS			60%
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros		
1	Pertsonal gastuak	43.547,00	1	Gastos de personal	43.547,00		
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	287.391,00	2	Bienes corrientes y servicios	287.391,00		
3	Finantza Gastuak	0,00	3	Gastos financieros	0,00		
4	Transferentzia korranteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00		
6	Inbertsio errealak	0,00	6	Inversiones reales	0,00		
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00		
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00		
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00		
	GUZTIRA	330.938,00		TOTAL	330.938,00		



Aurrekontu bateratua

SARRERAK			INGRESOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	5.982.200,00	1	Impuestos directos	5.982.200,00
2	Zeharkako zergak	1.359.500,00	2	Impuestos indirectos	1.359.500,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	5.588.260,00	3	Tasas y otros ingresos	5.588.260,00
4	Transferentzia korronteak	16.413.762,00	4	Transferencias corrientes	16.413.762,00
5	Ondare sarrerak	1.080.813,00	5	Ingresos patrimoniales	1.080.813,00
6	Inbertsioen besterenganatzea	1.383.000,00	6	Enajenación de inversiones reales	1.383.000,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	-586.289	8	Activos financieros	-586.289
9	Finantza Pasiboak	4.560.000,00	9	Pasivos financieros	4.560.000,00
	GUZTIRA	35.781.246,00		TOTAL	35.781.246,00

GASTUAK			GASTOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal Gastuak	11.488.259,00	1	Gastos de personal	11.488.259,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	12.321.439,00	2	Bienes corrientes y servicios	12.321.439,00
3	Finantza Gastuak	3.000,00	3	Gastos financieros	3.000,00
4	Transferentzia korronteak	4.170.926,00	4	Transferencias corrientes	4.170.926,00
6	Inbertsio errealak	6.467.259,00	6	Inversiones reales	6.467.259,00
7	Kapital Transferentziak	245.000,00	7	Transferencias de capital	245.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	1.085.363,00	9	Pasivos financieros	1.085.363,00
	GUZTIRA	35.781.246,00		TOTAL	35.781.246,00

Bozkatu dute proposamena eta hau izan da emaitza:

- Xabier Balerdi (EAJ): aldeko botoa
- Begoña Tolosa (EAJ): aldeko botoa
- Nerea Letamendia (EAJ): aldeko botoa
- Jose Mari Villanueva (PSE-EE): aldeko botoa
- Garbiñe Marzol (EH-Bildu): aurkako botoa
- Ander Figuerido (EH-Bildu): aurkako botoa
- Aitana Amondarain Esquisabel (EH-Bildu): aurkako botoa



Hori dela eta, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena: 2022ko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena: Jendaurrean jartzea hamabost egunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, Tolosako Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejaren Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **hasierako onarpena eman dio** 2022ko Aurrekontu Orokorrari.

4. TOLOSAKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO ABENDUAREN 15EKO IRIZPENA

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako etxez etxeke laguntza zerbitzua
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzuetako Saila



Espedientea	2021SABI00011
-------------	---------------

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Saileko buruak 2021eko abuztuaren 5an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60044-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitu dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikitatez gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen



116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentu hauek dituela egiaztatu da:

- Espedientearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Lan-hitzarmena eta enpresa-akordioa.
- Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen erregelamendua.
- Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60044-2021-ES) argitaratutako lizitazioaren aurretiazko iragarkia.
- Azterketa ekonomikoa.
- Administrazio baldintza partikularren plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.

Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:

Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 6.627.841,69 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

						LIZITAZIOAREN OINAR. AURREK.			Aurreikusitako aldaketan % 20	% 10 gehig. exekuzio unitateak	BALIO ZENBATET.
1 urte BEZik g	1 urte +BEZa	2 urte BEZik g	2 urte + BEZa	5 urte BEZik g	5 urte + BEZa						
961.751,28	1.000.221,33	1.951.605,10	2.029.669,30	5.098.339,76	5.302.273,35			1.019.667,95	509.833,98	6.627.841,69	

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientearen. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera



eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, talka egingo luke jarduketara eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, kontratuaren xedea SPKLren IV. Eranskinen jasotako gizarte-zerbitzuetako kontratu bat da hau, beraz, 22.1 artikuluren c) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (750.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratazailearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da.**

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurso berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatuzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, administrazio baldintza partikularren pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikulua 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.



IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentek hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: *“Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentek edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentek, behar bezala arrazoitua”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, honako honen arabera: *“Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”*.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, administrazio baldintza partikularren pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin; beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **6.627.841,69** eurokoa da SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, ehuneko 20ko aldaketa aurreikusi da. Halaber, SPKLren 309. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioa zehazteko sistema egikaritze-unitateei buruzkoa denez (unitateko prezioak), kontratuaren prezioaren ehuneko 10eko aldaketa hartu da kontuan.



LIZITAZIOAREN OINAR. AURREK.						Aurrikusitako aldaketan % 20	% 10 gehig. exekuzio unitateak	BALIO ZENBATET.
1 urte BEZik g	1 urte +BEZa	2 urte BEZik g	2 urte + BEZa	5 urte BEZik g	5 urte + BEZa			
961.751,28	1.000.221,33	1.951.605,10	2.029.669,30	5.098.339,76	5.302.273,35	1.019.667,95	509.833,98	6.627.841,69

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: 2.029669,30 euro, horietatik, 1.951.605,10 euro printzipalari dagozkio, eta 78.064,20 euro, BEZari (% 4).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak **0500.227.04.231.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion

	hilabeteak	balio zenbatetsia	Kuota (BEZa barne)
2022	8	679.778,63	706.969,78
2023	12	1.019.667,95	1.060.454,67
2024	4	339.889,32	353.484,89
	8	679.778,63	706.969,78
2025	12	1.019.667,95	1.060.454,67
2026	12	1.019.667,95	1.060.454,67
2027	4	339.889,32	353.484,89
aldaketak		1.019.667,95	
unitate gehigarriak		509.833,98	
GUZTIRA	60	6.627.841,69	5.302.273,35

Aurrikusita dago kontratua 2022ko maiatzaren 1ean hastea

betebehar ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Kasu honetan, SPKLren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditante hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

Erantsitako taulan, zerbitzua emateko ordu-motak, horietako bakoitzaren urteko ordu-kopurua eta horien gehieneko prezio unitarioa banakatu dira. Adierazitako prezioak Udalak ordaindu beharreko gehieneko unitate-prezioa dira, eta lizitatzailerik beharrezko hobekuntza egin beharko dute.

ERREFERENTZIAZKO GEHIENOKO PREZIO UNITARIOAK				
ordu mota	orduak/urtea	prezio unitarioa BEZik gabe	BEZa (% 4)	prezio unitarioa BEZarekin
ordu arrunta	42.000	20,99	0,84	21,83
gaueko ordua	500	23,40	0,94	24,33
jaiegunetako ordua	1.500	28,35	1,13	29,48

Erreferentzia da 2022. urterako kalkulaturiko prezio unitarioa. Ondorengo ekitaldietan, prezio hori % 3 igoko da urtean.

Memoria ekonomikoan jasotako irizpideak

- Soldata-eta eguneratu da, mendekotasuna duten pertsonak artatzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko 2018rako Estatuko VII. Hitzarmen kolektiboan (99010825011997) ezarritakoarekin bat etorrituz, 2019ko martxoaren 19ko Ebazpenaren bidez onartutako 2019ko soldata-taulekin.

- Soldata-berrikuspen hori 2019koa denez, eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileen berezitasunak, espezifikotasuna eta egoera berezia kontuan hartuta, urteko



soldata-igoera ehuneko 3koa dela hartu da kontuan; hau da, 2019ko taula ofizialari ehuneko 3ko igoera egin zaio urtero, 2022an indarrean egongo den erreferentziako prezioa lortzeko. Era berean, kontratuaren gainerako lau ekitaldietako bakoitzerako urteko ehuneko 3ko igoera hartu da kontuan.

- Aurreko puntuan aipatu den akordioa dela eta, eta kontuan hartuta hitzarmen kolektiboari Udalak ordaintzen duen orduko prezioaren igoera aplikatzen zaiola, Tolosako Udalaren helburua da urteko ehuneko 3ko soldata-igoera hori langileen nominetan islatzea.

- Urteko 1.592 orduko lanaldia hartu da kontuan.

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, eta plantillaren lan-egonkortasuna lortzeko, ezarri da plantillaren gutxieneko ehuneko mugagabea, kontratua exekutatzeko duten langile guztien artean, gutxienez ehuneko 60koa izango dela.

- Absentismo-tasa ehuneko 16koa izan da, Gizarte Segurantzatik eratorritako kostuak ehuneko 34,50 kalkulatu dira, enpresaren mozkin industriala ehuneko 6 eta gastu orokorrak ehuneko 13.

- Lau lanbide-kategoria mota hartu dira kontuan: etxez etxeko laguntza-laguntzaileak, koordinatzaile bat, zuzendari bat eta administrari laguntzaile bat.

- Ordu-kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, talderik garrantzitsuena etxez etxeko laguntzaileen taldea da, urtean 44.000 lanordu izan baitituzte. Halaber, beharrezkotzat jo da zerbitzuaren koordinatzaile bat lanaldi osoan izatea, zuzendari bat lanaldiaren % 15ean eta administrari laguntzaile bat lanaldi erdian.

- Lanorduei egindako erreferentzia orotarako, erabiltzailearen etxean egindako benetako lanordutzat hartuko da; beraz, bizilekuen arteko joan-etorriak lizitatzailerek kalkulatu beharko dituzte, langileei ordaindu beharko baitzaizkie, eta inola ere ez dira etxean egindako benetako lan gisa zenbatuko.

- Etxez etxeko laguntzaileen 44.000 lanorduek honela banatzen dira: 42.000 ordu ordutegi arruntean, 500 ordu gaueko ordutegian eta 1.500 ordu jaiegunetan.

- Kontratuaren xede diren lanak etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren lan arruntak dira. Lan horiek urteko egun guztietan egingo dira, erantsitako tauletan ageri diren prezioen arabera. Prezio horiek erreferentzia izan dira kontratuaren prezioa kalkulatzeko.

- Hiru prezio unitario desberdin hartzen dira kontuan zerbitzu-modalitate bakoitzerako: ordu arrunta, gaueko ordua eta jaieguneko ordua. Udalak ezarritako gehieneko prezio unitarioaren gainean, enpresek beheranzko eskaintza egin beharko dute.

- SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio-klausula zehatzen agirian ehuneko 20ko aldaketa aurreikusitako da. Halaber, SPKLren 309. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioa zehazteko sistema egikaritze-unitateei buruzkoa denez (unitateko prezioak), kontratuaren prezioaren ehuneko 10eko aldaketa hartu da kontuan.



VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta administrazio baldintza partikularren pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organoren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak,



zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 6.627.841,69 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino handiagoa da; halaber, kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udalbatzaren Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko abenduaren 15ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zufiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitana Amondarain Eskisabel eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena. Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.



Bigarrena.- Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin; beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **6.627.841,69** eurokoa da SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, ehuneko 20ko aldaketa aurreikusi da. Halaber, SPKLren 309. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioa zehazteko sistema egikaritze-unitateei buruzkoa denez (unitateko prezioak), kontratuaren prezioaren ehuneko 10eko aldaketa hartu da kontuan.

LIZITAZIOAREN OINAR. AURREK.						Aurrikusitako aldaketan % 20	% 10 gehig. exekuzio unitateak	BALIO ZENBATET.
1 urte BEZik g	1 urte +BEZa	2 urte BEZik g	2 urte + BEZa	5 urte BEZik g	5 urte + BEZa			
961.751,28	1.000.221,33	1.951.605,10	2.029.669,30	5.098.339,76	5.302.273,35	1.019.667,95	509.833,98	6.627.841,69

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: 2.029669,30 euro, horietatik, 1.951.605,10 euro printzipalari dagozkio, eta 78.064,20 euro, BEZari (% 4).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion

betebehar ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Kasu honetan, SPKLren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditante hau **izapidetze aurreratuz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, **kontratua benetan exekutatzeko**, hurrengo ekitaldietako udal aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa **egon behar da**.

Erantsitako taulan, zerbitzua emateko ordu-motak, horietako bakoitzaren urteko ordu-kopurua eta horien gehieneko prezio unitarioa banakatu dira.

ERREFERENTZIAZKO GEHIENOKO PREZIO UNITARIOAK				
ordu mota	orduak/urtea	prezio unitarioa BEZik gabe	BEZa (% 4)	prezio unitarioa BEZarekin
ordu arrunta	42.000	20,99	0,84	21,83
gaueko ordua	500	23,40	0,94	24,33
jaiegunetako ordua	1.500	28,35	1,13	29,48
Erreferentzia da 2022. urterako kalkulaturako prezio unitarioa. Ondorengo ekitaldietan, prezio hori % 3 igoko da urtean.				



Adierazitako prezioak Udalak ordaindu beharreko gehieneko unitate-prezioa dira, eta lizitatuzaileek beheranzko hobekuntza egin beharko dute.

Hirugarrena.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren memoria ekonomikoa, administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua.

Laugarrena.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatuzaileek beren proposamenak 40 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Gizarte Zerbitzuetako Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako etxez etxe laguntza zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

5. KEAOK EMANDAKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA ETA TOLOSAKO UDALERRIAN ARLO SOZIOEDUKATIBOAN ETA PSIKOSOSIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIO-PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea: Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua.

Unitate sustatzailea: Gizarte Zerbitzuetako Saila

Espedientea 2021SABI0009



II.- AURREKARIAK

Lehenena.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Saileko buruak 2021eko martxoaren 9an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua; Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60046-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Kontratazio espediente hau 2020SABI0006 kontratazio-espedientea huts deklaratu izanaren ondorioa zen.

Bigarrena.- Idazkaritzaren eta Kontuhartzailearen aldeko txostenekin, 2021eko uztailaren 21ean egindako Antolakuntza Batzorde Informatiboak aho batez onartu zuen erreferentzian aipatutako kontratazio-jardunbidea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

Hirugarrena.- 2021eko uztailaren 29an egindako Osoko Bilkurak onartu zuen kontratazio-jardunbidea onartzea, lizitazioari hasiera ematea eta Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, kontratuaren balizko luzapenak salbu.

Laugarrena.- Aurrekoa aintzat hartuta, 2021eko uztailaren 30ean argitaratu zen Euskadiko Kontratazailearen Profilean zegokion iragarkia. Halaber, Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian argitaratu zen 2021eko abuztuaren 4an (DO/S S149 – 397302-2021-ES).

Bosgarrena.- 2021eko abuztuaren 21ean, lizitatuzaileen proposamenak aurkezteko epea irekita zegoela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO/OARC) jakinarazi zuen, AGISAS elkarteak erreferentzian aipatutako espedientearen kontrako errekurtsua jarri zuela. Udalak, legearen arabera, kontratazio-espediente guztia helarazi zuen legezkoa den lege-txostenarekin batera.

Seigarrena.- 2021eko abenduaren 15ean KEAOk 196/2021 ebazpenaren bitartez erabaki du partzialki onartzea AGISAS elkarteak aurkeztutako errekurtsua. Horren ondorioz, lizitazioa arautzen duten pleguak baliogabetu eta esleipen-prozedura ezeztatu du.

III.- ONDORIOAK

Aurreko seigarren aurrekarian aipatutakoaren ondorioz, kontratazio-organoari dagokio Tolosako udalerrian arlo sozioedukatihoan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuaren kontratazio-jardunbidea (2021SABI0009 espedientea) bertan behera uztea.



IV.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoa jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Horrenbestez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio-jardunbidea bertan behera uzteko organo eskuduna.**

Horiek horrela, 2021eko uztailaren 29an egindako Osoko Bilkurak erabaki zuen behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen ziren kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek Udalbatza osoak ebatzi behar zituen. Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarra izango litzateke organo eskuduna; baina, gaiaren garrantzia ikusita, proposatzen da **Osoko Bilkurak eskumenak berenganatzea** eta, ondorioz, bera izatea kontratazio-jardunbidea bertan behera uzteko organo eskuduna.

V.- IRIZPEN EZA

2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak 126. artikuluan zehazten du informazio-batzordeen irizpenak nahitaezkoak direla eta ez lotesleak. Hala ere, premiazko kasuetan, Osoko Bilkurak edo Gobernu Batzarrak informazio-batzordeak irizpen gabeko gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango ditu, baina, kasu horietan, hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio informazio-batzordeari, egiten den lehen bilkuran. Horrela, proposamen honek informazio-batzordearen irizpena izan ez duenez, **nahitaezkoa izango da hartzen den erabakiaren berri Antolakuntza Batzorde Informatiboari ematea egiten duen lehen bilkuran.**

Aurreko guztia aintzat harturik, udal idazkariaren oniritziarekin, Tolosako Udaleko Osoko Bilkurari honako erabaki hauek hartzeko proposatzen zaio, haren ebazpenaren kalterik gabe:

PROPOSAMENA

Lehena.- Osoko Bilkurak 2021eko uztailaren 29an Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetutako eskumenak berenganatzea 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- KEAOk emandako ebazpenaren ondorioz Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa bertan



behera uztea eta legearen arabera argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian.

Hirugarrena.- Tolosako udalerrian arlo sozioedukati boan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuaren kontratazio-jardunbide berria martxan jartzea.

Laugarrena.- 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak 126. artikuluan zehazten duenaren arabera, hartutako erabakiaren berri Antolakuntza Batzorde Informatiboari ematea egiten duen lehen bilkuran.

Bosgarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Gizarte Zerbitzuetako Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetutako eskumenak berenganatzea, Tolosako udalerrian arlo sozioedukati boan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa bertan behera uztea eta kontratazio-jardunbide berria martxan jartzea.

6. BERRI EMATEA: TOLOSAKO UDAL BIZTANLEEN ERROLDAREN BERRIKUSPENETIK EMANDAKO BIZTANLEEN KOPURU OFIZIALA, 2021EKO URTARRILAREN 1EAN.

AURREKARIAK

2021eko azaroaren 25ean igorritako jakinarazpenean (Tolosako Udaleko sarrera-erregistroa: 2021/12/25ekoa, 10.555 zenbakiduna), Errolda Kontseiluak jakinarazi zion Udal honi biztanleriaren zifra ofiziala, 2021eko urtarrilaren 1eko datarekin.



ARAUDIA

1.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduak (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua) ezartzen dute udalek Estatistikako Institutu Nazionalari (aurrerantzean, **EIN**) bidali behar dizkiotela, baliabide informatiko edo telematikoen bidez, udal erroldako datuetan gertatzen diren hileko aldaketak

2.- Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 81. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek udal erroldak berrikustea onartuko dute, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari erreferentzia eginez, eta aurreko ekitaldian egindako jarduerak formalizatuko dituzte.

Horretarako, kontuan hartuko dituzte dagokion udalerriko erroldan izandako aldaketak, hileko truke-fitxategietan EINera bidali direnak, bai eta hark martxora arte hileko fitxategietan (HppmmMIA.3aA fitxategiak) jakinarazitako koordinazioaren emaitza ere.

3.- Populazio-zifraren proposamena lortzeko kontuan hartuko den informazioa izango da erreferentzia-datako erregistro bizi eta aktibo guztiek osatutakoa, hau da, berrikuspenaren urteko urtarrilaren 1ekoa, eta hauek izango dira:

- Udalek EINera bidali badituzte, IDA-Eroldan HppmmMIA.3aa fitxategietarako argitaratutako urteko egutegian ezarritako egunera arte;
- EINren oinarrian sartu direnak;
- EINren koordinaziotik eratorritako gorabeheraren batek eragiten ez badie, eta desadostasuna sortu bada, oraindik berretsi edo ebatzi gabe badago.

4.- Ebazpenak, 2018ko uztailaren 20koak, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakartzarena eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarenak, udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena udal erroldaren urteko berrikuspenari buruz eta biztanleriaren zifra ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruzkoak emandako prozedurari jarraitu ondoren, Udalek urteko egutegian ezarritako epea izango dute **EINek** egindako eragozpenei alegazioak aurkezteko. Alegazio hauek aztertu eta ebatziko ditu EINek, Ebazpen honetan jasotako irizpideei jarraituz. Ebazpenean jasotakoez bestelako argudioetan oinarritutako alegazio oro, **EINek** onartzen ez badu, Erroldatze Kontseiluaren esku utziko da desadostasun gisa, hark txostena egin dezan

5.- Erroldatze Kontseiluak desadostasunen berri eman ondoren, bai eta EINeko lehendakariak Jaurlaritzari bidaliko dion biztanleria-kopuruaren proposamena ere, azken hori udal bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, deskargatzeko prest dagoela jakinaraziko zaio FppmmMIA.aaa fitxategiko IDA-Eroldaren bidez (V. eranskinean dago fitxategi horren erregistro-diseinua), alegazioak baietsi/ezetsi izanaren emaitzarekin.

6.- 743/2019 Errege Dekretuak, abenduaren 20koak, 2019ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren berrikuspenaren ondoriozko biztanleria-zifrak ofizialtzat jotzen ditu. Tolosako



udalerraren kasuan, biztanleriaren zifra ofiziala, 2021eko urtarrilaren 1ekoa, **19.795koa** da.

Beraz,

Udalbatzak honako honen berri izan du: 2021eko urtarrilaren 1ean Tolosako udalerriko biztanleriaren zifra ofiziala **19.795koa** dela, Estatistikako Institutu Nazionala emandako informazioaren arabera.

Hori horrela, Informazio hau argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta iragarki taulan.

7. EH BILDU UDAL TALDEKO KIDE ETA ORDEZKOEN ALDAKETA BATZORDE INFORMATIBO ETA BERDINTASUN KONTSEILUAN.

Batzorde informatiboetako eta Berdintasun Kontseiluko kideen aldaketa hauen berri eman zaie udalbatzarkideei:

Olatz Artola Apeztegiak zinegotzi-kargua utzi izanak eta bere ordezkari Estitxu Kortejarena Ugartek kargua hartu izanak batzorde informatibo batzuetan eta Berdintasun Kontseiluan EH Bilduren ordezkariak aldatzea ekarri du. Hauek dira egin diren aldaketak:

Lurraldea Batzordean:

Olatz Artola Apeztegiaren ordezkari, Xabier Martinez Quinquilla

Herritarrak Batzordean:

Olatz Artola Apeztegiaren ordezkari, Ander Figuerido Zubiria

Antolakuntza Batzordean:

Xabier Martinez Quinquillaren ordezkari, Estitxu Kortejarena Ugarte

Beraz, EH Bilduko kideen osaketa honako hau da:

Lurraldea Batzordean

Kideak

- Andu Martinez de Rituerto Arregi
- Ander Figuerido Zubiria
- Aitzol Garzia Azurmendi

Ordezkoak

- Aitana Amondarain Eskisabel



- Kristina Pelaez Errazkin
- Xabier Martinez Quinquilla

Herritarrak Batzordean

Kideak:

- Ander Figuerido Zubiria
- Aitzol Garzia Azurmendi
- Xabier Martinez Quinquilla

Ordezkoak

- Andu Martinez de Rituerto Arregi
- Kristina Pelaez Errazkin
- Garbiñe Marzol Ormazabal

Antolakuntza Batzordean

Kideak

- Garbiñe Marzol Ormazabal
- Aitana Amondarain Eskisabel
- Kristina Pelaez Errazkin

Ordezkoak

- Andu Martinez de Rituerto Arregi
- Ander Figuerido Zubiria
- Estitxu Kortejarena Ugarte

Berdintasun Kontseiluan:

Kidea: Aitana Amondarain Eskisabel

Ordezkoa: Kristina Pelaez Errazkin

Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

GAI ZERRENDATIK APARTE ETA GAIAREN PREMIATASUNA DELA ETA, UDALBATZAREN BILKURAK AHO BATEZ ONARTU ONDOREN, HONAKO GAI HAU AZTERTU DA:

- **TERRAZEN AZALERA HANDITZEKO ALDI BATERAKO EMANDAKO BAIMENA INDARRIK GABE UZTEA, ETA HAREN ERAGINAK AMAITUTZAT EMATEA. 2021/2120 ALKATEAREN DEKRETUA BERRESTEA.**

2021/2120 Alkatetza Dekretuak honela dio:

2020ZZZZ0056

ALKATEAREN DEKRETUA

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-ehendakariak emana.



Gaia: Terrazen azalera handitzeko aldi baterako emandako baimena indarrrik gabe uztea eta haren eraginak amaitutzat ematea.

Aurrekariak

2020ko maiatzaren 28ko 2020/740 Alkatetza Dekretuz onartu ziren alarma egoeran ostalaritzako jardueri lotutako terrazen azalera handitzeko baldintzak, SND/399/2020 Aginduak emandako neurrien ondoren. Ebazpen horren 4. puntuan adierazi zenez, ebazpenaren indarraldia urriaren 31 bitartekoa zen.

2020ko urriaren 29an egindako Ohiko Osoko Bilkuran Tolosako Udalbatzak aho batez onartu zuen aipatu 2020/740 Alkatetza Dekretua berrestea eta haren eragina luzatzea 2021eko martxoaren 31 arte.

2021eko martxoaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran Tolosako Udalbatzak aho batez onartu zuen adierazitako 2020/740 Alkatetza Dekretua berrestea eta haren eragina bigarren aldiz luzatzea, mahai desberdinetan eserita dauden pertsonen artean gutxienez metro eta erdiko distantzia egokia mantentzeko ezarritako neurri espezifikoak indarrean irauten zuen bitartean. Era berean, onartu zen mantentzea 2020ko urriaren 29an Ohiko Osoko Bilkurak finkatutako interpretazio irizpidea, soilik Alde Zaharrari aplikatuz.

2021eko urriaren 6ko 39/2021 Dekretuan (EHAO 2021/10/07 – 201 zk.) adierazi zen COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera Euskadin amaitu zela eta, hortaz, normaltasun berri batean sartzeko neurriak zehaztu ziren.

Honela, 2021eko urriaren 6ko Aginduaren (EHAO 2021/10/07 – 201 zk.) bitartez ezarri ziren COVID-19aren pandemiaren aurrekaria kontuan hartuta osasun publikoaren zaintza eta kontrolaren berezko prebentzio- eta geldiarazte-neurriak.

EAEko egoera epidemikoak, ordea, gora egin du eta 2021eko abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuaren bitartez berriz ere osasun-larrialdiko egoera deklaratu da. Hori dela eta, Covid-19agatik pandemia kudeatzeko neurrien Legea (ekainaren 24ko 2/2021 Legea) indarrean sartu eta Euskadiko Babes Zibilaren Plana aktibatu da, "LABI" euskarazko siglez ezagutzen dena.

Hortaz, gaur egun, Euskadin, Osasuneko Sailburuaren hiru agindu eta Lehendakariaren Dekretu bat daude indarrean, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak ezartzen dituztenak.

Araudi aplikagarria

- 2/2021 LEGEA, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa.
- AGINDUA, 2021eko urriaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berriari COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa.
- AGINDUA, 2021eko azaroaren 16koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez 2021eko urriaren 6ko Aginduan jasotako neurriak ezartzen eta modulatzeko baitira



COVID-19 kutsatzeetan 14 eguneko tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gorakoa den udalerrietan –2021eko urriaren 6ko Agindua, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa–.

- **AGINDUA**, 2021eko azaroaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitalaren (QR) derrigortasuna ezartzen duena, 2021eko urriaren 6ko Aginduan ezarritako neurrien osagarri gisa. Lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa da agindu hori.
- **44/2021 DEKRETUA**, abenduaren 2koa, lehendakariarena, COVID-19aren pandemiak EAEn eragindako osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko duena.
- **47/2021 DEKRETUA**, abenduaren 14koa, lehendakariarena, zeinaren bidez xedatzen baita establezimendu, ekitaldi, jarduera eta leku gehiagotara zabaltzea Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren bidez ezarritako Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko derrigortasuna.
- Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantza (GAO 199 zb., 2016/10/20).
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

Azterketa juridikoa

Lehenengoa- Kontuan izanik Euskadin hartutako azken neurriak, eta indarrean daudenak, **neurri orokorra eta prebentzioskoa da leku publikoetan pertsonen artean 1,5 metroko distantzia gordetzeko ahalegina egitea**. Horrela, ba, aipatutako distantzia mantentzeko beharra arau izatetik gomendio izatera pasa da.

Bigarrenengoa.- Pertsonen arteko distantzia mantentzeko agindu espezifikorik gabe, **bertan behera gelditzen da 2020ko maiatzaren 28ko 2020/740 Alkatetza Dekretuaren bigarren luzapena oinarritzen zuen baldintza**. Izan ere, bere indarraldia baldintza honi lotuta eman zen: “mahai desberdinetan eserita dauden pertsonen artean gutxienez metro eta erdiko distantzia egokia mantentzeko ezarritako neurri espezifikoak indarrean egotea”.

Hirugarrenengoa.- 2020/740 Alkatetza Dekretuari dagokionez, indarraldia oinarritzen zuen neurria indarrean ez dagoenez, **beharrezkoa da indarririk gabe utzi eta haren ondorioak amaitutzat ematea**.

Laugarrenengoa.- Kontuan hartzekoa da ostalaritzako jardueri lotutako terrazen azalera handitzeak eremu publikoen gehiegizko okupazioa ekarri duela. Hori dela eta, **premiatzekoa da erabilera publikoaren eta pribatuaren arteko oreka lortzeko aipatutako terrazak jatorrizko azaleretara bueltatzea**.

Bosgarrenengoa.- Aipatutako 2020/740 Alkatetza Dekretua 7/1985 Legeko 21.1 m) - larrialdi egoera bereziak- eta q) -baimenak emateko eskuduntza- artikuluetan oinarrituz eman zen; beraz, **hura indarririk gabe utzi eta haren eraginak amaitutzat emateko**



eskamena ere artikulua horietan oinarritzen denez, alkateak du dagokion ebazpena emateko eskumena.

Hala eta guztiz ere, bertan behera utzi behar direnez Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzan egindako egokitzeak, ematen den Alkate Dekretua Udalbatzak (7/85 Legea 22.2.d) art.) berretsi beharko du hurrengo osoko bilkuran.

Goian adierazitako aurrekariak kontuan izanik, Alkatetza honek

E B A T Z I D U

LEHENA.- 2020ko maiatzaren 28ko 740/2020 Alkatetza Dekretua, alarma egoeran ostalaritzako jarduerari lotutako terrazen azalerak handitzeko aldi baterako baimena emateko baldintzak aurreikusten zituena, indarririk gabe uztea eta haren eraginak amaitutzat ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dagoen ordenantzan egindako egokitzeak bertan behera uztea.

Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzaren (GAO, 199 zb., 2016/10/20) ondoko artikulua hauek jatorrizko idazkaetara bueltatuko dira:

1. 7.1 artikulua.
2. 7.2 artikulua
3. 7.5 artikulua
4. 8.1 artikulua
5. 8.5 artikulua
6. 8.2 artikulua
7. 9.1 a eta b artikulua
8. 9.1.d artikulua
9. 9.2 artikulua

Ondorioz, honako idazketara bueltatuko dira:

"7. artikulua. Ibilgailuak dabilzan kaleetako espaloietan jarritakoak.

1. Terrazaren azalerak ezingo du gaintitu ostatuaren eraikinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik inguruko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da.

2. 1,5 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorrirako eta etxebizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.



3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza zintarri parean kokatu behar da pasabidea etxaurre ondoan utzita (eranskin grafikoaren 1. aukera).

4. Segurtasun arrazoiak direla eta terraza zintarri parean kokatu beharra badago zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 30 cm utzi behar dira.

5. Terrazak ez dira inola ere jarriko arkupe edo pasabide estalietan:

8. artikulua. Oinezkoen kaleetako terrazak.

1. Terrazaren azalera ezingo du gainditu ostatuaren eraikinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik inguruko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da.

2. 1,5 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorriko eta etxebizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.

3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza etxaurretik urrundu beharko da oinezkoen joan-etorria ahalbidetzeko (eranskin grafikoaren 1. aukera).

4. Aintzat hartuko dira baimena emateko garaian ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorri beharrak. Ibilgailuentzako pasabide nahikoa eta iraunkorra bermatu behar da.

5. Salbuespenez baino ezingo dira arkupe edo ataripe gisako pasabide estaliak okupatu. Udal zerbitzuek zehaztuko dute zein kasutan baimenduko diren terrazak. Horrelakoetan, 1,5 m-ko pasabidea bermatu behar da.

9. artikulua. Plaza eta espazio libreetako terrazak.

1. Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak kasuan kasuko ezaugarriak aztertuta eta ondorengo baldintzen arabera ebatziko dira:

a) Terrazaren etenik gabeko luzera plaza edo espazio libreak duenaren erdia izango da gehienez ere.

b) Terrazaren zabalera plaza edo espazio publikoak duenaren herena izango da gehienez ere.

c) Inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre utzi behar da.

d) Etxaurretik 1,5 m-ra jarri behar dira terrazak.

2. Terrazak ez dira inola ere jarriko arkupe edo pasabide estalietan”.

HIRUGARRENA.- 2020ko maiatzaren 28ko 740/2020 Alkatetza Dekretua eman aurretiko egoerara bueltatzea.

Aurrez terraza baimena dutenek, azalera handitzeko aldi baterako baimena eman aurretiko egoerara bueltatuko dira eta aurrez baimenik ez dutenak, berriz, ezingo dute terrazarik instalatu.

LAUGARRENA.- Dekretuaren indarraldia ezartzea.

Dekretu hau indarrean sartuko da 2022ko urtarrilaren 10ean.

BOSGARRENA.- Udalbatzak hurrengo Osoko Bilkuran berrestea.



SEIGARRENA.- Dekretu honen berri ematea interesdunei eta herritarrei, horretarako egokiak diren baliabideak erabiliz, erabakiak ahal den hedadura handiena izan dezan.

Tolosan,

Nire aurrean,

Alkatea

udal idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vazquez

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2021/2120 Alkatetza Dekretua berrestea, hau da, terrazen azalera handitzeko aldi baterako emandako baimena indarrik gabe uztea eta haren eraginak amaitutzat ematea.

8. ZINEGOTZI BATEN KARGU UZTEAREN JAKITUN IZATEA.

EUZKO ALDERDI JELTZALEA/PARTIDO NACIONALISTA VASCO taldeko zinegotzi Nerea Letamendia Belloso andreak karguari uko egin dio dagokion idazkia aurkeztuz.

Egoera hau aztertu ondoren, eta Hauteskunde-Eraentza Orokorra arautzen duen Lege Organikoaren 182. Atalean xedaturikoa kontuan harturik, Udalbatzak honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Jakinaren gainean geratzea EUZKO ALDERDI JELTZALEA/PARTIDO NACIONALISTA VASCO taldeko Nerea Letamendia Belloso andreak zinegotzi karguari uko egin diola.

Bigarrena.- Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea dagokion kredentziala eman dezala alderdi horren ordezkariak izendatutako hautagaiaren alde, zinegotzi-kargua bete dezan.

Hirugarrena.- Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea.



9.GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:00etan, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

O. e.
ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IPLE0011-2021-12-23 Ohiko osoko bilkurako akta/2021-12-23 Ohiko